

**FELIX ZUBIAGA**

**URAREN OHIKUNA**



FELIX ZUBIAGA

**URAREN OHIKUNA**

IBAIZABAL


Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura eta Turismo sailaren  
laguntza jaso dau

Egilea: Felix Zubiaga  
Eragilea: Fermin Iraolagoitia  
I. S. B. N.: 84-600-7056-5  
Depósito Legal: BI - 501 - 89  
Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ibarra, 1, Bilbao  
Argitaratzailea: IKA - Ibaizabal - Tnoa. 6734246 - 6731850

# I

## UR BARRENA

«Ur barrena, ur goiena,  
Urteberri egun ona,  
egun onaren seinalea,  
hemen dakargu ur berria».



## UR BARRI

Busti naizu ixipuz  
garbi nadin gelditu,  
urez ikuz nagizu  
eta zuriz edurtu.

Ur goien ur barrenak  
ikuikatzan banau ni  
egin naikezu benaz  
haserako gizaki.

Ura Ebaren erraitan  
bizi heriogarria,  
Adan Barri zaitudan  
sahietzeko ur bizia.

Amagandik bainintzan  
jaiobarri ostera,  
urak eta zure hitzak  
naue edatu bizira.

## AQUARIUM I

Ur, uherdura, uhasino, uhete,  
ubatu, uharre, ubegi, uraldi,  
uba, uraburu, ursondo, uharte,  
uhaste, urepel, uhalkor, uraldi.

Urdin, ubi, ubar, urgune, urguri,  
ureka, uxada, urtaize, urmael,  
uhin, ugaltadar, uhalde, urzuri,  
urzutu, usula, uharre, urangel.

Uhetz, ugabera, uharan, uralde.  
uherdo, uharroila, ubide, uberka,  
uhar, uherdura, uhate, ubelde.

Uzabal, uharri, urtoki, uhezti,  
Usin, uhatxio, urgune, ureka,  
urabar, ureri, urantzu, urzuti.

.....

Uxaden, ugel, ubelar,  
izana dakar izenak,  
urzori, uzan, ur-bizar,  
.....  
izokia ur gardenak.


## UHALDU

Ur gazigozotatik  
bizi asmamen mundutik  
formaz taxutu,  
argitaratu,  
berezi nozu hagaitik  
leze zurrunbilotik.

Nortasun berezia,  
ibaitik erosia  
amak irrinoz  
gozatzeraino,  
uren hako gazia,  
uhaltze berbizia.

Kaos baltzetik hara  
jaurtin sarez atara,  
heldu ninduzun  
mamin ta hezur,  
jator zeure irudira,  
giza endako mundura.

Uretik harakoan  
sorreraren asmotan  
arpei-arpegiz,  
erratu barik,  
senezko bizi-arautan  
aita dazaut zeuregan.



## URDURI

Ura ta ura  
zenbat gura  
iturrian edan dogu  
zurrut glu-glu  
t'alkar busti  
txirripistin.

Ur jolas,  
haur jolas;  
urak barrez  
txirristi-plaust,  
txisak ordez  
sarrastan guk.

Ur jolas,  
haur jolas  
barrabas.

Zenbat nahi ur  
glu-glu zurrut  
edan barriz,  
txirripistin  
haur jolas,  
ur jolas  
urduri.

## AQUARIUM II

Usuri, uxeldu, uxadatu,  
urdindu, urantu, urbildu,  
uretu, urratu, ureztatu,  
ugaldu, ugalau, urzutu,  
uhatu, ubertu, uhanditu,  
urtsutu, urtu, uherritu,  
ubeldu, urtatu, ubildu,  
uhartu, uger egin, agertu,

.....  
hitzak aditza sortzen  
t'ekinaren ekinaz  
urak harria igatzen.

## AQUARIUM III

Uri  
urite  
urixka  
uhielte  
uriol  
uri-zaparrada  
uhieldu  
uhialtu  
uhilada.

.....  
ura aideak edan du,  
hodeiak ura bekarsku.

## AQUARIUM IV

Euri  
eurika  
euritan  
eurite  
euritsu  
euri-landur  
euri-langar  
euri-lanbro  
euri-txistil  
euri-tanta  
euritako  
.....  
euritan dager  
ostarku,  
euriak ona  
dakarsku.

## EURITE

Trumaia jo dau,  
euria da,  
haizea dabil  
txistuka.

Zeru zatia  
jausi ei da  
hodeietatik  
potzura.

Hodeietan da  
zaparrada,  
potxingoetan  
txipli-pla.



## HIRURETA

Uroz, Urroz, Urepel, Uberoaga,  
Urgaitz, Orgaz, Urbez, Urbeltz, Urederra,  
Urgozo, Urona, Urbedeinkatu,  
Urgel, Ubera, Urrazaga, Urantzu,  
Urbi, Urbia, Urbion, Urbina, Urbinaga,  
Ubieta, Urbieta, Urbiola, Urbizu, Urbiztondo,  
Udabe, Eube, Urgoiti, Urgan, Udondo,  
Ugarte, Ufarte, Uharte,  
Ugartemendia, Otzauharte,  
Ugalde, Uhalde, Ugalbideta,  
Ugarriza, Udiarraga, Ustarrotze,  
Uranga, Uretamendi, Urreta, Ureta,  
Ubago, Uhago, Ugazko, Uhagon, Ubide, Uraska,  
Ulazia, Urleza, Urlezaga,  
Urdain, Urtasun, Urzainki,  
Usturre, Urturi, Urtubi, Urzelai,  
Urtiaga, Urteaga, Uterga, Usandizaga,  
Ubarmin, Urumin, Uzin, Uizi, Uhaitzaindi,  
Urimeneta, Urnieta, Urbasa, Urain,  
Ubide, Uzelai, Ugerka, Uharka,  
Uhergara, Ustaran, Ugaran, Ursuaran,  
Urtzua, Urrusolo, Urrexola, Urola,  
Urraburu, Uraburu, Urruñia, Urrunaga  
Urezandi, Urezarantze, Urazurrutia,  
..... mila urte ta  
urak bere bidean,  
eta gu hemen.

## URIBE

Ur bizi sortzaile, egile,  
zeuk egokitu dauskuzu  
hau lur-hau bizitoki aratz  
ta zeuk zulatuz mendiak  
—harria ebakiz Arbaiun—  
bide langintzan dagigun.

Edegiz zeuk mendateak,  
Otxate, Autza t'Ozaita,  
Aixola, Altza t'Alzola,  
Osaba, Osa t'Ozana,  
Ayalde, Aya t'Ayala,  
izenak bide t'ate aina,  
milaka eratan moldatu,  
hainbat haitzetan zulatu,  
etxean erraz sartu-urten,  
etsaiei barriz ertziten,  
jende jatorrez uhaldu,  
bizkortuz ibar-aranak,  
iturritan bateatu  
mendi, baso, zelai, landak:  
etxea dausku antolatu.

Berbetan ihardun orduko  
hiztegizko goralpena  
har eikezu, sor dautsugun  
monumentorik onena.

## UREDERRA

Ibaia labanka doa  
mendian behera,  
uharka landu daroa  
bere ohera.

Ibaia jauzika dabil  
uharriz zehar,  
kankarrak harri biribil  
biribilduaz.

Begiak garden ta zabal  
filmutzen doa  
hegaletako loreak,  
goitik zerua.

Ibaia, norantza zoaz  
lehor hontatik?  
Distira danak bilduaz  
noa zeurekin.



## URZORI

Mendian behera pol-pol-pol,  
harritar-tean pli-pla-pla,  
errekeari dario  
eten gabeko soinua.

Pol-pol-pol eta pli-pla-pla  
errekaxoa badoa,  
entzun, poeta, ea den bera  
sonu jatorren klabea.

Iturburuan pol-pol-pol,  
jauskadatxoan pli-pla-pla,  
handiagotan zurrusta,  
entzun uraren murmura.

Pol-pol-pol eta zurrusta,  
pli-pla-pla ta bristi-brasta  
ohar uraren soinua ete dan  
musikearen jaiotza.

## URTOSKI I

Doniturrieta,  
zure uretatik edatea  
bai festa!

Pardeluz, Txutxuta, Pagabe,  
Auzokoegia...  
Aralarko artegi, sarobe  
ta danen erdian  
Doniturrieta,  
haitzetiko iturria hatan be.  
Ta nork edegita?  
Uhari, kantari ta garden;  
edaten zatoze.

Doniturrieta,  
zure uretatik edatea  
bai festa!

Edan ba, gizaki t'abere  
ur santua da-ta.  
Zelatan besterik daiteke  
hako ur sortzailea?  
Izerdi, nekeak hor daukee  
bere sendakia  
t'egarri kiliak debalde  
atsegin sentia.

Doniturrieta,  
zure uretatik edatea  
bai festa!

## URTOSKI II

Ura sorburu dogu,  
ura edangarri,  
ur ezea dario  
gure lurrari.

Ur izen abizenak  
—zenbat deitura!—  
urak bedeinkatuta  
gure eusko lurra.

Urak uhaltzen ditu  
gure soloak,  
urak argiz gozaten  
olako astunak.

Ura bizigai da-ta,  
ura uhalkor,  
uholdez gaitu amak  
argitarazo.

Uretan bateatu,  
bizi barrira  
edatu gauz eleizak  
bere baitara.

Ura danon iturri  
egarritean,  
arpegien espilu  
apain gaitezan.



## URASKA

Iturriari ur beste  
poesia eni balerit,  
ausaz poeta neinteke  
lehortean ere ur begi.

Iturri sainak mendian  
edurtza argien urtzean;  
ahorte honek zelan ornidu  
begi goitarrik ezean?

Iturri banintz kantari,  
kantarau plen-plen ur bizi  
kolkotik hara atera neinken  
egarrituen gozari.

Ai ene, baina, iturritxu,  
udabarriko susmuru,  
udazkenerantz hodei ahorrek  
zelan zaukazen akitu!

Iturri sakon haitzarri,  
uberka hortatik ixuri,  
euriska samur, bateo iraunaz  
bihur naikezu olerkari.

## URUMIN I

Ur ta lur gara  
eta su,  
bustin ezea  
sugartu.

Suzko bustina  
ur ta lur,  
gugan bizia  
moldatau.

Urez bustina  
ezotu,  
sutan heltzea  
labetu.

Urez ta lurrez  
mamindu,  
ta suzko arnasez  
gogodun.

## II

### UHARRE

«Nire berbok entzunarren,  
bete ez dagizana,  
etxea are gaienan  
jaso eban tentalaren  
antzekoa da:  
jausi zan euria,  
etorri euhiolak,  
jo eban etxea,  
eratzi lurrera  
t'handia izan zan  
haren hondapena».

## USINBELTZ

Ene haurra,  
ez zaitezela hurrera  
Usinbeltzera.

Usinbeltzeko laminak  
zorrotzak daukaz haginak,  
haren potzura urbilez gero,  
lilurak dagoz bitinak,  
alper orduan ahienak.

Ene haurra,  
ez zaitezela hurrera  
Usinbeltzera.

Mari dago Usinbeltzean,  
itzi berari bakean,  
haren barruti hesiak zehatz  
gorde ez bazengiz legean,  
galdua zara lezean.

Ene haurra,  
ez zaitezela hurrera  
Usinbeltzera.

Ba dau lilurazko indarra  
—haren erakar beharra!—  
ur sakonetan espilu bila  
ba zoakioz ahora,  
agur betiko, ene haurra,  
Ez zaitezela hurrera  
Usinbeltzera.

## URBEDEINKATU

Gizakiaren osasunerako sakramentu gehienak  
uraren gain oinarritu zenduzan Jainko,  
entzun adikor gure eskariak  
et'edozetariko garbiketarako den sorkari honeri  
geitu eiozu zure bedeinkazinoaren + indarra,  
zeure misterioen serbitzari izanik,  
demorrio ta ixurriak daizala ahiena,  
sinistedunen etxe eta gelak  
garbi daitezen bere zipristinaz,  
ez daiala han izan lekurik  
ez gogo atsitu, ez aide kutsurik,  
urrun handik etsaien azpi-jokuak,  
ur honen zipristinaz uxa bedi  
hangoen atsedean eta segurtasunari  
ezerk ostopa leikionik,  
zure izen santuarren  
eskatzen dogun osasuna  
kalte guztietatik  
zaindua izan daiten.  
Amen.

## UHARRE I

Ur danak ez baitira  
edatekoak,  
zenbait edaki barriz  
egarbereak,  
zer edan ere ez daki  
ene gogoak.

Sua diabilt barrube  
t'urak ez dira  
sainetako odolen  
erresumina  
freskatzeko, ez ta ere  
baretzeko aina.

Asetasunak baitan  
ez dira iraunkor,  
nork dagike barnean  
ura zorrazo,  
beti ixuri daikean  
neure aserako.

Mila marka estarrien  
kilikagarri,  
hori dozu edakien  
iragan irrits,  
edatea ia izanen  
delako alperrik.

Zelan mindu dan ura  
t'ez da nahikoa  
garbitzeko kutsua  
orni kloroa,  
ur onaren saindura  
goitatik doa.

Gogo zikinak loitu  
dauz iturriak,  
otoi, ez daizala hartu  
balbe larriak,  
goi zurrustak alaitu  
beiez uriak.



## UHAR I

Ederra jatan ludia  
gizartera heldu aurretik,  
zikindu dauste begia  
lerdeak txuaz jaurtikiz.

Zerulurren batasuna  
bai nenkusala sakonki,  
miragarrion etena  
saminago jat geroztik.

Itxutu, itzusi, kutsatu,  
gizadia ezin ikusiz,  
bizia sortzeko ahalmendun  
espilua apurtuz gerostik.

Ez dakit nora naroan  
uharren oldar itxuak,  
bideak galdu ohi dodaz  
norabideko argiak.

T'harkaitz amaren altsotik  
soinez zidarra ninduzun,  
errurik gabeko espilu  
menditik jatxi aurretik.

Ondotik neuncan baratza,  
emonkor eta mazala,  
begituz soilik zuhaitza  
txukunagotzen nebala.

Uharken ene kaizuak  
ezin dauz batera eroan  
hainbeste lohien pisuak:  
drogatuta ea nagoan.

## UR-NESKA (ipuina)

Maite liluraz urak  
grinatu,  
errekara itzuli da  
Txolintxu.

Amak inotsan zehatz  
Txolini:  
«laminarekin kontuz  
ibili».

Baina Txolintxu hantxe  
zubian,  
neska-maitemindurik  
lehian.

Uretako neskatxa,  
lamina,  
erdiz-erdi neskea  
t'arraina.

Uraren mumur deia  
ete zan?  
Pulunpatu zan Txolin  
uretan.

Ezkendu zan ala ito  
Txolintxu?  
Geroztik ez zan inon  
argitu.



## UHARRI

Ur kirrutuak irri badagi,  
kontuz uhinakin, Marinel;  
itzul ontzia ezker-eskubi  
uharriari behin ihes.

Uraren irri zuri horrexek  
gazi-gozozko burlezar,  
argi dinotsue eskutatuxe  
dozula azpitik harritzar.

Urneskak dozuz ibilli gauzez  
ostoparriok ipinten,  
arrantzaleak arraina legez,  
sarean jausi daitezen.

Maiz portu-aurre, zoriona esku  
dozula, ia, itxastar,  
uharri horrexek ekar daiketsu  
traidorearen zoritxar.

## UHETE

«Ur»-etik euri, Eate  
—zenbat zulo, hainbat ate—  
ateak edei, ateak zabal  
beti euren borondate:  
ahortean maiz euririk ez ta  
uhetean sobran be.

Urangel, uhar, uraldi,  
busti danean, gel hadi,  
euri larri handiei ezar  
eien atea hemendi,  
gure uharkak ez dozan hire  
larrientzako hain handi.

Uholde, uhiol, urite,  
han mesede t'hemene kalte,  
ez ete don bada aterri behar  
bazterrak hondarazo arte?  
Marigazkoak kitu nahi doguz  
ta onean heugaz, Eate.

Bedar onaren kaltetan,  
bedar txarraren bultzadan  
hau daroagun ahorte elkorra  
gure belardi alorretan,  
askazi onaren sustriak barriz,  
aulduz amen erraietan!

## UGAR

Itxasoa bare dago,  
maitale urdin,  
igeri noako hondartza  
arminetik,  
urak dagist txera laban  
bustialdi  
atseginez gonbidatzen  
nauelarik.

Uhinak datoz —ura dagon  
miragarri—  
ikumenaz laztan gozo,  
jasta gazi,  
ur bitsetan buru jaso  
ugar dagit,  
urak barriz, mugilazo,  
olgeta nahiz.

Txipli-txapla ni burrukan  
urarekin,  
arnasea purrustaka  
eztularri,  
harrapatu gura izan naun,  
ur bihurri.  
Azpijolas halakorik  
ez jonat nahi.

Suzko dragoia ikusi dot  
hondarretan  
nasai etzan egoela  
eguzkitan,  
buztan puntaz ura azpitik  
astinketan.

Kutsadura erabilan  
arraiotan!

## UHARRE II

Papertegiko zikinez  
  lertzatuko errekan  
Ibaizabal, ez dagiket  
  goi zantzurik edan,  
poesiarik ediren  
  halako espilutan.

Hitz neurtuan badihardut,  
  papera dot bezten  
zurimenta bera loituz,  
  narras bainenbilen.

Poesiak ez leukaken *liburua*  
  kuaderno beharrik  
ta garbiago legoken *liburua*  
  ikutu gaberik.

Ikus edertia t'usna,  
  ez beztu papera,  
papertegiaz ez kutsa  
  uraren gardena.

Edertzaroa non baina  
  aldendu danetik,  
ikusmenaz ahal ezina  
  zelan gogorantzi  
paperari oroitzapena  
  lumaz emon ezik?

## URANGEL 83

Lerde zikinak, pozoiak  
iruntziz doala ibaia,  
uhar gazioz zelan itxutu  
dogun espilu garbia!

Suminduaren sumina,  
erreka doan zikina!  
Bihotzerreak oka daraitso  
suge gorrien pozoia.

Ibaia doan irauliz  
irensugea dirudi:  
asmo biurrak agertu dauskuz  
sufrezko atzetan urduri.

Garrastasunak gainezka  
egin baileutson, orruka  
jasoko ditu bere zulotik  
suge buruak zemaika.

Zazpi buruak jatorik,  
Zazpi Kaletan sarturik,  
irensugeak amorru danak  
okatu dauskuz usurik.

Kobratu dauskuz azkenik  
odol apentzaz narrutik,  
geuk hazi dogun irensugea  
gure etxe kontra da jarki.

## UHARDO

Nork dau lerdetan orbandu  
Narkisek behar espilu?  
Zelan dagike Narkisek orain  
amaren antza konpondu?

Gangar, alper eta uhardo  
Norkis kaletik digaro  
punki ganoraz ta postmodernu:  
«Nor ederrago neu baino?».

Oi Narkis,  
bahenki  
nondik jo,  
nora so!

«Uretan ikuzi bat, txo,  
—barne deiak daragoio—  
egia osoa zeinek erakus  
daikit berak baino hobeto?».

Idoira doa Narkistxo  
zidar espilutara so,  
amaren harako arpei jatorra  
ikusi nahiz argiro.

Oi Narkis,  
bahenki  
nora jo,  
nondik so!

Idoi gaineko lerdetzak  
zantar salatu bai-deutsa,  
damurik dakus Narkis gaisoak  
lerdetan gogo karantza.

Nork dau lerdetan orbandu  
Narkisek behar espilu?  
Goizero zelan daike gaur geroz  
amaren antza konpondu?

Narkisek  
ez dauka  
ai nondik  
ez nora!

## URRATZ 85

Bide busti, Bidasoa,  
paušo laban mugakoa,  
Bidasorik alde-bien  
askatasuna doa.

Muga-mugan zan auzia  
esku loturik jausia  
Mikel Zabalza Euskaldiren  
askatasun hautsia.

Esku-lotu bai ta mutu,  
hamaikatxo igaroa,  
muga estuna daroagu  
ai samarainokoa!


Uren neguko otzikarak  
zelan gaukazan dardaraz!  
Euskalerrriak kaliza hau  
edan behar osterala!

Mugazaina zeu bazara,  
begitu egizu uretara,  
nonbait auzi garbirako  
espilu argi den bera.

Endarlatzako tunelak  
iruntzi ditu papelak  
ilunago gel daitezan  
auzi honen kredentzialak.

Ez zaiz izan, Bidasoa,  
mugako negar malkoa,  
muga barik, alde bien  
zaitez zubi-makoa.





## URETAMENDI 85

Gorrotoaren suminak nola  
sumendiaren borborrak  
urak askatu, lokatz irauli,  
ondatu dauskuz bazterrak  
t'inozentzia  
dau irentzia  
erruki bariko indarrak.

Ba zan ahierra, ba zan marruma,  
han zan mendeku legea,  
giza teknikak ezin kontrola  
lurpeko labē galdea  
non dan Omayra  
lokatz artera  
erori bitima enea.

Atilamendi, jainko zigorra  
zoritxarrak igorria,  
inosenteenak jasan beharra  
egin jakun mingarria,  
non hiru orduak  
iraun egunak  
ein jatzuzan, martiria.

Gure teknikaz uriolari  
Omayra kendu bageuntsan,  
seguru asko, harrotxoago  
ausaz egongo gintzazan:  
ea ete garen  
sorrasteko hemen  
bai zoriona golpean.



## UR-NESKAK II

Hiru laminatxoak Santurtzin  
Sudur, Begi ta Belarri  
uretik hara susmo danari,  
zurtz eginik dagoz larri.

Hiru laminetatik batak,  
Sudurrek, sudur ahoak  
esku biekin estaltzen dauz ta  
arnasestu dau gogo.

Hirutan bigarren den laminak  
txunditurik dauz estaltzen  
esku biekin begi bitzuak  
gaitzik ez ikustarren.

Hirugarren dan aizta Belarrik,  
besteen alboan josirik  
belarri biak daukaz estali,  
ez baileun entzun gurarik.

Hiru laminatxoak Santurtzin,  
plazan hirurak iturtzain,  
giza-munduaz sorgor ta musin,  
zer jasoko den gurekin.

Iturtzain dagoz hiru laminak  
okerduraren zentzunaz  
kutsatu ez daizan gizakienak  
iturriko uren gardena.

Eratsu baten ta kukubilo  
aizta laminok plazaurre,  
eta mamusko diren besteino  
taxuz ba dozuz andere.

Ez entzun, ez usna, ez ikusi  
laminatxook Santurtzin...  
Norbaitek daki guk baino hobeki  
zer den jasoko gurekin.



## UHATXIO 86

Hirugarren angeruak  
turuta joala,  
argizuzia lez sutan  
zerutik izarra  
jausi zan.

Chernovil,  
asensio mingots,  
bedarmin.

Eta urik eta ibairik  
hirurenaren gain  
jausirik,  
uren garratzak jotako  
gizaseme asko  
zan hilik.


Chernovil,  
asensio mingots,  
bedarmin.

## URUMIN II

Urak indarra dau galdu  
gure lurrean,  
urak zikintzen dihardugu  
gure ibaietan,  
bateoko urak ubertu  
eleiz pontetan.

Garbitasuna dirutan  
saldua dogu,  
probetxuaren aurrean  
gara emagaldu,  
ikuskizuna zelatan  
jakun lausotu!

Espirituak nonahira  
—gugan ur ta lur—  
daroa bere indarra;  
zoli erantzun,  
Espirituaren deidarra  
jarrai dagigun.



## URIOL 2.000

Susmorik badabil  
sortu daitekela-ta Noerena barriz,  
eta holako uholez lurra erasorik,  
geldi ete gaitkezan danok hondaturik.

Urak horrelako  
markeaz itxasoaren mugak gainditzeko  
mila urten epea nonbait da beharko,  
arrenkurarik zertan hortik ez baitago.

Baina nahiz t'aldiak  
horren astiro aldatzen dauezan bideak,  
nork daki, jakin, opa dauskuna zoriak  
ta ze kalte daikigun ein atomikeak.

Hainbat kutxaginen  
dira, ari, nahiz ta Noe mezutiko ez diren,  
nonbait urak hel ez daitezainoko alturen  
jabetasuna lortu nahirik bailebilzen.

Ea zer gertauko  
lurbirako oinarriak saputz daizeneko,  
goiko ta beheko uren arrisku gabeko,  
ontzia prest daukee nonbait zerurako.

## URLOHI

Errekak kutsatu zirenean,  
urekin batera,  
begikera  
galduko genduan.

Begirik bai, baina ez dogu ikusten,  
mundua dakusgu ostaz garden,  
begiok doguzala uren pare,  
bitz harro pustuak espilatzen.

Begia lausorik daukagula,  
ibaiko uharrak ohi bezala,  
t'espilu kontrako geu bagara,  
muinari dario ur ustela.

Kutsuak kloroaz emendatuz,  
sapore gaiztoko urak doguz,  
iturri garbitik gozatzea,  
jadanik baigendun debekatu.

Ahoko gozoa dogu galdu,  
uherri gaziak gauz naspildu,  
edanaz ezina dogu asea,  
zer edan t'ha garala kontuizu.

## URTEGI AHOR

Urtegi danak ahortu ondoren  
igarle aizun,  
herria eremuz zehar daroe  
hamaika maisuk.

Herriak, egarri bai-da,  
ur bila dihardu  
etsipenaren errogatiba  
madarikatuz.

Deabruari deitzea  
alper erregu:  
eremu ahorrak zelan leikie  
uraz erantzun?

Sinbolu barik, diabolua  
daukela lagun,  
ezingo zara, herri eri, osatu  
horreen milagruz.

Ur bizitara zaitetz itz uli,  
herri penatu,  
—Urtziren urak urtegi,  
ez dira amaitu—  
igarle honeen jokua  
galgarri jatzu.

## UHARTE

Uhinak bezala, joan-etorri,  
aldiak doaz igaro,  
higan ez diagerk igaduraren  
ez haurtzaro t' ez zahartzaro,  
olatu, uhinak ba diabilkizak  
zakarto t' aldiz emaro  
t' oraindino ere aurre dagiok  
hik ekaitzari, Izaro.

Lau aldetatik oratu hauka  
inguru hesiz Itxasok,  
izena bera urez bustita  
berari saldu bailegok,  
ezokeritan mendetu ezina  
oldar nahi joek ekaitzok,  
baina hik gotorki gizaldietan  
burujabetza gorde dok.

Harkaitz sendoan oinarriturik,  
ba dakik etxea zaintzen,  
uren gainetik ama lurrari  
egunero begiratzen,  
bera dana zintzoro gordez  
arerioei ez saltzen,  
mareotatik ondotxo osatu,  
marinel zardain ta gailen.

## UR-TXORI

Kaioek ez dautsue usterik galtzen  
neguz lehorretik dabiltzanero,  
Ibaizabal uretan daue beiratzen  
gosearen lehiaz behin ta barrero

Edur urtuaren urdinlakoa  
dakarre uharrek latza galdurik,  
eta arrankariren baten burua  
azalduko bide dala dirudi.

Kaiook ur bizi dozuzalako  
susmoak gidatzen urazalera  
ta mahaia prestatu behin eutseneko  
itxaropena ez doaz galtzera.

Sapust dagitsela-ta ibal ustelak,  
nekez daue etsiten susmo usainera,  
lortuko fruturik ausaz horrela  
itxaropenaren itxaronera.

Ur-txoki usteak nago burrukan  
madarikazinok hartu ez daino,  
garden garbituko direlakoan  
Ibaizabaleko urak oraino.

## URABURU I

Urak baziran lehenago  
Adanen espilu,  
nora daue begituko  
Adanen semek gaur.

Hau da semeei eskeintan  
dautsegun eredu:  
gure zikinak uretan  
espilu goibeldu.

Ur lohiak osabidea  
iturburuan du,  
kontzientzi lohien obena  
non bir-bateatu.

Ai gure barne espiluak  
itxura tristedun!  
Jadanik garbitegiak  
eiteko ba da ordu.

### III

#### UR GOIENA

«Ur hau edaten dauena  
egarri daite barriro.  
Nik emon daiodanetik  
edan dagiana  
ez da egarrituko.  
Nik emon daiodan ura  
betiko bizitzaraino  
txirristan doan ur bizi  
biurtuko jako».

## UR BIZI

Ibai ustelak  
ur garbi hori  
har daianean  
bizidun ibai  
biurtuko da  
arrain uhariz  
t'arrantzaileak  
sarea jaurtiz  
ariko dira.  
Yori frutakiz  
ibai hegalak  
ez dela ahorrik  
hareen orritan.  
Geure gozari  
ilero emonkor  
osasungarri  
dira izango  
temploko haitzari  
ixuritako  
ur bustigarriz.

## URTZI

Urtzi, Urtzi,  
goiko urek behekoak beiez  
itzul garbi:  
ur goienak ur barrenen  
berbizgarri.

Urtzi, Urtzi,  
Sanjuan goizeko intzetan  
gaitzan busti.  
Urtzi, Urtzi,  
Sanjuan loraren sukutan  
mozkorturik.

Urtzi, Urtzi,  
zure uraren urtzea  
Laino t' Hodeik  
ur goienaren uparka

beie ixuri.

Urtzi, Urtzi,  
bersortu beie lurrama  
edur t' eurik.

## URAITZ

Hako Meriban  
erromesari  
motuko ahorrak  
zelako egarri!  
«Jauna gurekin  
zinez badago,  
zerren haitzari  
ura ez dario?  
Mortu hontara  
Jaunak agian  
bultza ete gaitu  
itto gaitazan?»  
Jaunak Moiseri  
mezu dagitso  
t'haitza makilaz  
astinduazo.  
T'urak saltari  
danen aurrean:  
ba zan atsegin  
ura edatean.  
T'harrigarria!  
Mortutik zehiar  
haitz iturria  
eurekin joian.



## URZTATU

Aita Guztiahaldunaren +  
Jesukristo bere Seme  
ta gure Jaunaren +  
t'Espiritu Santuaren +  
izenean (amen)  
araotzen zaitut, sorkari ura,  
ez daitela eskuta zugar  
inongo jainko aizunik  
t'anenino itzaltsuen  
kutsaduratik gorde zaiz,  
zure bitartez arerioen  
nausitza uxatu,  
etsaia bere angeru  
sinigalduekin  
daizun ahienatu.

Jesus Jaunaren ahalez,  
bizi-hilak epaitzera,  
lurra suaz juzgatzen  
etorriko bai-da. Amen.

## USURI I

Jordan bateoko uretan  
gaitzari hil t'hobiratu,  
ama uraren erraitan  
nekaldikide murgildu,  
aintzakide ere zurekin  
herio ostean berbiztu,  
zure sahietzeko uretan  
bizi barrirat edatu,  
gizaki zaharra dala hilik,  
gizon barri sortu nozu,  
Jainko semeen ordekoa  
dohan emona daustazu,  
justizian zuriz jantzi,  
bizi naiten santutasun  
Espirituaren erraiak  
eurak direla milagru.



## UGUZI

Nik uraz uguzten dot,  
baina berak suaz  
t' Espiritu Santuaz  
zaitue eguziko.

Uraz bateatzera  
bialdu neuenak:  
Espiritu Santua  
—esana daust berak—  
jatxiten badakusu  
norbaiten gainera,  
bera da Espirituaz  
uguzten dauena.  
Horra Jainko Bildotsa  
—aitor dagit beraz—  
berak garbituko dau  
munduko gerena.

Usoaren antzean  
zerutik jatxiten  
Espiritu Santua  
bere gain gelditzen  
ikusi dot t' abotsa  
zerutik esaten:  
«Hau dot Seme maitea».  
Ikusi t'entzun dodana  
zinez dot aitortzen.

## URGOIENA II

«Zerutar senargeiagaz  
ezkondu da gaur eleiza,  
Kristoak Jordango uretan  
garbitu bai-dauz gure hitsak.

Errege estegura doaz  
erregaludun magoak.  
Bai pozik estaliarrak  
uretik itzul ardaoaz!».

## UROLDE

Et'itzelezko haizea sortu zan  
itxasoan,  
txalupa handatzerainoko olatuak  
jagi ziran,  
burpeko, gainean Jesus joala  
txopan lotan.

Hareek iratzartu ta badinotse:  
«Ez ete dautsu ardura gu galtzeak,  
irakasle?».  
Jesusek itxartuz, haizeari esku  
eta itxasoari «ixo —dirautso—  
geldi hago!».

Gutziz baretu zan, haizea ibituz,  
«zergaitik —inotsen— sinisbakook,  
horren bildur?».

## UHERI

Uheriz nengon eta zuk  
begiratu egin ninduzun.  
Fariseuek,  
zapatuz zanez,  
ez nindeikezula osatu  
uste eutsuen.  
Nik itxaropen  
zugana ostera altxatuz,  
bertan sendatu ninduzun.

Ba zan marmarrik orduan  
fariseuen artean,  
Jainkozko eguna  
marariginaz  
orbandu zendulakotan.  
T'haren ustela  
aurrez berela  
salatu zendun argitan.

«Zuen semea  
edo t'idia  
potzura jausiez gero,  
jaia izanarren,  
ez zendukeen  
handik aterako aguro?»

Beraz uheri  
gaitzak aspaldi  
jota dagoen gizona  
ez al nengiken  
bertan uraren  
gaitzetik salbau atera?».

T'hareek sapuztu,  
ez ekien-ta  
zelan erantzun.

## URONA

Urdiaingo ur mirari,  
Uronako Andre Mari,  
uraren onak garbi daiala  
sabeloiaren ixurri.

Zure uretatik beharko,  
Andre Mari Uronako,  
ur bedeinkatuz gure semea  
onik dauskuzu aterako.

Uronako Andre Mari,  
zaitugun ontzi omengarri,  
ontzi hau urez bete daroat  
kutsuaren osagarri,

Uronako Andre Mari,  
uraren onaz ageri,  
zuri deituta ez daiten geldi  
inor laguntza gabarik.

## URTOSKI II

«Jaungoikoaren doaia  
ezagutuko bazengi,  
eta «emon egistazu ura»  
zeuk eskatuko  
zeuskio hari  
t'harek emongo  
ur bizitik...».

«Emon eistazu edaten  
ur horretatik,  
urtegiraino ez daidan  
joan beharrik».

## USURI II

«Jesusenganat hurreratzean  
hilik ikusi ebenez gero,  
ez eben hautsi  
haren belaunik.  
Baina gudarietako batek  
lantzea harturik,  
haren saietza zulatuz, bertan  
ura eta odola ixuri ebazan  
zauri idegitik.  
Lekukoak aitor dagi  
ikusi ebana iragarritz».



## URZULO

Zeuren iturri bizi baztertuz,  
gogozko egarria asetzeko ez diren  
urzulo ahortu liluraz joatzuz  
eskutik joaken ames ur bilatzen.

Zeuren betiko poesia itxita,  
poesia ustezko t'ez uste daroen  
jainkosa jausien bularren irrikaz  
ederti galduen erauskin-usmatzen.

Bihotza berbera ur bizi zuloa  
dozuna lagata, deslaitu joatzuz  
etsipen gazitan norbera t'hurkoa  
itoazoz gogaituaren gogaituz.

Oi zure deiari baleutse jaramon!  
«Zatoze edatera gaur nire uretik  
ta diruz behartsu eta ezain zarenok  
asetu zaitezegogara dohanik».

## UR GOIENA I

«Norbait egarri bada,  
betor nigana  
eta edan bei fedea  
nigan daukanak.

Ur bizidun erreka  
halakoari  
jariongo jakoz-ta  
erraietatik».

## URABURU II

Gurari horreen mundutik  
itzul aitenean,  
iturburuak barrutik  
ase haike harean.

Egarri hareek joanak,  
ezpainen ezean  
ez eureak t'ez eurenak  
ez dozak salgaian.

Bihotza eskuan bahengo  
konsumismotik at,  
mundu barrian egongo  
t'heu barriztu bertan.

Zentzun barriez benetan  
ikui daikek, jasta,  
ur hori heure nekean  
aringarri dok-ta.



## URAITZ II

Danak edan eben  
harkaitz haretatik  
t'harkaitza Kristo zan  
ta Kristo gurekin.  
Zure harkaitzeko  
uraren bizitik  
mortu bide honetan  
edan gura dot nik,  
agintzako herrira  
heldu ahal nadin.  
Mortua jatala  
bidean egarri,  
zelan aurrera ekin  
laguntza bagarik?  
Zure saietzeko  
zauri bizi hori  
aulerian indar  
aurretik doakit,  
bera dodalako  
osakai iturri.  
Oi, noiz jarioken  
harkaitz-tenplo hortatik  
hainbat eremuren  
gezal gozagarri,  
Jordan ibailako  
zorion urtegi.



## URMAEL

«Benetan dirautsuet,  
urez eta Espiritu Santuz  
jaioten ez dana,  
ezin daiteke sartu  
Jainko erreinura.

Aragitik jaioa  
aragi da,  
Espirituagandik  
jaiokoa,  
espiritu ostera».

## URSUTU

Urak dakarrena  
urak daroa.  
Gizakia zer da?  
Nora ete doa?

Urak dakarrena  
urak daroa:  
lurkoia hutsal da,  
finko gogoa.

Urak dakarrena  
urak daroa,  
suz eta Espirituz  
ez badai gora.

Urak dakarrena  
urak daroa:  
gogoz jaio danak  
ba dau aingura.

Urak dakarrena  
Urak daroa,  
Kristo oinarrian  
ezik jaso.

Urak dakarrena  
urak daroa  
zelan gel naiteke  
tximulakoa?

## URANDI

«Itxasoak urak handi  
ez dau hondorik agiri,  
pasauko nintzake handik  
maitea ikusteagaitik».

Maiteari jarraitzeko  
ontzi ziurrik ez dago  
t'oinez uretan ibilten  
neu nazen eskolabako!

Zeu bazara, Jaun, gorantzi  
uretara egin nadin  
eta oinutsik zeuregana  
joango naz ur gainetik.

Maitearen deiak urrun,  
olatuak dagist zurrust,  
oinak uretan labanka  
ezbaikor, zinbili-zabun.

Hel zakidaz, Jaun, honago,  
hondazorian bai-nago!  
Zergaitik zaukaz ezbaiak,  
seme argal, sinisbako?

## URRATU

Urak harria  
igatzen,  
nire barnea  
zeuk xautzen.

Ur ta su,  
ez urez bakarrik,  
urez t'Espirituz.

Urak bidea  
egingo  
lotu ez nadin  
potxingo.


Ur ta su,  
ez urez bakarrik,  
urez t'Espirituz.

Urbegi hortatik  
ta frango,  
ez kutsatutik  
edango.

Ur ta su,  
ez urez bakarrik,  
urez t'Espirituz.

Oinik, eskurik  
ez daidan  
ur geldietan  
nik ezar.

Ur ta su,  
ez urez bakarrik,  
urez t'Espirituz.



## UREZANDI

Ugartemendi, Urleza,  
nahiz t'Urtziren aitormena ur handien hotsa baino  
sinisgarriago diran,  
Ubide, Urbi, Uraska, txalotu eizue Urtzi,  
ospatu ur murmuretan.

Urbia, Uizi, Urbasa, goraldue eizue Urtzi  
edur zurien distiran,  
Uzelai, Urain, Uharka, iragar eizue Urtzi  
kutsu gabeko isladan.

Ubera, Eube, Ureta,  
t'urtegieta urak, espila eizue Urtzi  
zerulurren besarkadan  
Uharte, Uzin, Ugaran  
t'uazino marmariak, aipatu eizue Urtzi,  
nahiz ta Urtziren aitorrak zuen jarioak baino  
sinisgarriago diran.

Uhergara, Uroz, Ustaran,  
plazetako iturriak, kanta eizue Urtzi  
herriaren batzarretan,  
Urtubi, Urgan, Urepel,  
sukaldetako txorrotak, bedeinka eizue Urtzi  
bihotz barren-barrenetan.

Uhaitzandi, Urmeneta,  
ta zerulurretako urak, abestu eizue Urtzi  
ospatu galdietan.  
Urezarantze, Urturi..., Urtzi, Urtzi, Urtzi, Urtzi...

## USUIL

«Zuk niri oinak garbitu, Jauna?  
Ez dot ezelan jasango!».  
«Garbituko ez baneuntsuz, Kefas,  
ez zeunke ezer nigazko».

«Ene Jaun, t'ez oinak bakarrik,  
garbi naizu buru-belarri».

